



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Gaiztarro: Uharte aberats bat
Donostiako auzo langileen
bihotzean. Aspirazionismo
sozialaren auzia frankismo
berantiarrean**

Jon Aldabaldetrekua Delgado

27-34 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.03>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Gaiztarro: Uharte aberats bat Donostiako auzo langileen bihotzean. Aspirazionismo sozialaren auzia frankismo berantiarrean

Jon Aldabaldetrekua Delgado¹

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Jon.Aldabaldetrekua@ehu.eus

Laburpena

Lan honetan lantzen dena Donostiako eremu industrialaren erdian kokatutako Gaiztarro eremuaren idiosinkrasia berezia da. 1960tik aurrera, frankismoaren Garapenaren Aldian, aldaketa ugari gertatu ziren Donostiako hainbat auzoek, Pasaia, eta Errenterian osatzen zuten eremu industrialean. Migrazio uholdeak, langile auzo berrien sorrerak eta hirigintza kaotikoa izan ziren ondorio nabarmenak. Honen erdian, klase ertaineko geruza altuei zuzendutako Gaiztarro etxe taldea eraiki zen. Iturri historiko anitzen eskutik, eremu honen sorrera prozesua, ezaugarri arkitektonikoak eta bertako biztanleen azterketa soziodemografikoa eskaintzen da. Finean, langile auzoek inguratutako Donostia industrialean aurkitzen dugun salbuespen eremu gisa jaio baitzen Gaiztarro.

Hitz gakoak: Gaiztarro; Hiri historia; Frankismoa; Hiri segregazioa; Aspirazionismo soziala.

Abstract

What is being worked on this work is the particular idiosyncrasies of the Gaiztarro area, located in the center of the industrial area of San Sebastian. Since 1960, during the Franco Development Period, many changes have taken place in the industrial area of San Sebastian, Pasaia and Errenteria. The main consequences were migratory floods, the emergence of new working-class areas, and chaotic urbanism. In the midst of this, Gaiztarro was built, aimed at the upper strata of the middle class. The process of creation of this area, its architectural characteristics, and the sociodemographic study of its inhabitants are provided by a variety of historical sources, since Gaiztarro became the field of exception we find in the industrial San Sebastian, surrounded by working-class neighborhoods.

Keywords: Gaiztarro; Urban history; Francoism; Urban segregation; social aspirationism.

1. Sarrera eta motibazioa

Komunikazio honen bidez, Donostiako periferia industrialean izan zen salbuespen deigarri baten inguruan sakondu nahi da. Inork gutxi jarri izan du atentzioa honetan, izan ere, Donostia hiri industrialaren denaren ideia guztiz alboratua izan da historiografia nagusian zehar. Bestetik, langile auzoek osatzen zuten periferia industrial hartan Gaiztarro eremuak ordezkatu zuen salbuespen eremua ere guztiz ezezaguna da Donostiarren artean ere.

XIX. mendearen baitan zentratutako historiografia da Donostiakoa batez ere, *Belle Époque*ren ezaugarriak, aktoreak eta hiriaren eredu aristokrata dira jorratutako alderdirik aipagarrienak, Euskal Herriko *Petit Paris* gisa ezaguna egin zen hiriaren argazki historikoa finean. Beste hitz batzuetan, goi klasearen espazio eremua da bereziki landu dena, klase burgesek eta ekonomikoki ahalmen nabarmena zutenek disfrutatuta eta aldarrikatu zuten hiria. Hau da aztertu den Donostia, eta hiriaren historiografian erreferentea dena.

Haatik, hiri honek norabide desberdinetako ibilbidea egin zuen. Frankismo bete-betean, Donostiak erdigune turistiko izateari utzi, eta administrazio eta zerbitzuetan oinarritutako hirigune gisa ezaugarritu zen. Hala ere, askotan landu gabe geratu den ezinbesteko etapa bati ez zaio behar besteko garrantzia eman: Donostiako hiri konfigurazioa eta egitura soziala zeharo aldatu zuen industrializazio prozesuari.

Euskal Herrian sarritan aipatu dira Bilbo eta bere itsasadarren arteko ezberdintasunak, baina Donostia ezezaguna da arlo honetan. Zerbitzuen sektorean pisu handia izan arren, Donostia eta bere

¹ Eusko Jaurlaritzak emandako PREDOC-2021 bekari esker egindako ikerlana da.

ingurua, Erreteriaraino herri industrial eta Pasaia portua erreferentziazko *hinterland* izanik, neurri handi batean hiriaren eragin eremuko espazio industrial bilakatu zen 1960ko hamarkadatik aurrera. Prozesu honek subjektu berri bat jarri zuen erdigunean hirian eta espazioan: proletariotza industrial. Bertan gertatu ziren Donostialdeak azken mendean jasan zituen aldaketa urbanistiko, sozial eta kultural handienak: hiri hedapen basati eta kaotikoa, migrazio uholde izugarria eta inolako zerbitzu eta azpiegituretatik gabeko langile auzune berrien eraikuntza.

Zentzu horretan, Donostiako ekialdeko auzo langileetatik hasita Pasaia distritu eta Erreteriaraino luzatzen zen ardatz industrial sendoa sortu zen Donostialdean. Auzo langile hauen guztien idiosinkrasiarekin hausten zuen salbuespen bakarrenetakoa topatu dezakegu ekialde industrial honetan: Gaiztarro eremua. Hemen azalduko diren emaitzak, martxan dagoen doktoretza tesi baten zatitxo baten parte dira. Bertan, Gaiztarro eremuari dagozkion datu adierazgarriak aurkitu ditugu, aztertzen dugun aldagaia edozein izanda ere, bere inguruko auzoekin alderatuz (Bidebieta, Altza, Trintxerpe) beti emaitza ezberdinak ematen baitizkigu. Berau justifikatzeko, iturri historiografiko ezberdinak erabili dira, besteak beste; 1970eko biztanleria errolda, ahozko elkarrizketak², hirigintzaren inguruko Donostiako Udal Artxiboko dokumentazioa, prentsa artikulak, fitxategi fotografikoak, eta azterketa bibliografiko zehatza.

Denen artean biztanleria erroldak emandako informazio baliagarria izan da funtsezko iturria. Haren ustiaketa, kodifikazioa eta digitalizazioa egin ondoren, Gaiztarro eremuan bizi zen jendearen erradiografia sozial zehatza lortu dugu, familia egitura, jatorria, lanbidea, haur kopurua edota etxebizitzaren jabetza mota lortuz. Jarraian, horietako datu interesgarri batzuk jorratzea da asmoa.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Aipatu moduan, oro har Donostiako historiografia hiriaren eta klase zehatz baten historian zentratu den arren, badira ere langile klasearen eta auzo periferiko industrialen historia azaleratzen saiatu diren lan batzuk, nahiz eta askok izaera partziala izan edota arlo zientifiko konkretu batean zentratu diren. Hiriaren historiografian egon den maisu lanik handiena aspektu honetan, dudarik gabe Calvo Sánchezek (1983) eginikoa izan da, askotan balio gutxiegi ematen zaion lana alegia. Hari horretatik tiraka, arkitekturan eta hirigintza plangintzan kokatzen dira Uranga (2012), Iceta Etxabe (2018), eta Echabeguren (2011) lanak.

Beste aldetik, Gómez Piñeiro (1982), Urquidi (1984) eta Ponte Ordoki (2014) geografia esparruan kokatu genitzake, eta Nistal (1990), Larrinaga eta Ubiria (1992), López (2010), Artola (2000), edota Saez García eta Gómez Piñeioren (2017) lanek azterketa historikoa dute helburu. Denek, hiriaren baitako perspektiba sakona eskaintzen dute, hiri aldaketaren prozesuaren nondik norakoak plazaratuz eta hiri problematika ezberdinak azalaraziz.

Donostialdeko eskualdeko ardatz industrialaren inguruan jorratutako lanen artean, eta nolabait bertan izandako hiri segregazio eta proletarizazio prozesua lantzerantz ausartu direnen artean, Cañamero-
ren lanak (1988; 1990), edota Moratinosenak (2001) egin dira. Aipatu beharra dago Gaiztarro eremuaren eta bere inplikazioen inguruko lanik ez dela egin orain arte. Martínez eta Murilloren (1996) eta aipatutako Gómez Piñeioren lanek, eremu honetako hainbat aipu biltzen dituzte, baina oro har, inork gutxi landu izan duen eremua izan da honakoa.

Beraz, komunikazio honek hainbat helbururi erantzun nahi die. Batetik, Donostia industrialaren berri eman eta langile auzoen errealitatea Donostiako hiri konfigurazioaren parte gisa aztertzea. Bestetik, Gaiztarro eremuaren sorrera prozesua, ezaugarriak eta espazio zein arkitektura eredua garatzea, eta bertan bizitzera lekualdatu ziren bizilagunen erradiografia soziodemografikoa egitea dira.

² Ahozko elkarrizketetan, hizkuntza originala mantentzeko hautua egin da, batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk euskaraz daudelarik. Horrela, elkarrizketatuaren termino eta esamolde zehatzak kontserbatu nahi izan dira, hizkuntza bakoitzak eskaintzen dituen konnotazioak jasotzeko.


3. Ikerketaren muina

3.1. Gaiztarro eremuaren deskribapena eta ezaugarri soziodemografikoak

Donostiako hiri konfigurazioa aztertzerako orduan, joera handia dago ere zentro-periferia ardatzaren banaketara mugatzeko. Haatik, dena ez da zuria edo beltza. Zehazki, hiriaren ekialdean kokatzen den etxe talde eremua da Gaiztarro, Bidebieta, Trintxerpe, Intxaurrondo eta Altzarekin muga egiten duen eremua.

Gure ikerketan aztertutako indize eta datu sorta guztietan Gaiztarroren alboan kokatzen diren eremu guztiekiko ezberdinak diren emaitzak azalerazi ditu eremu honek. Langile auzoz inguratutako eremu batean, 1970ean Gaiztarroko biztanleria aktiboaren %33,3 goi mailako zuzendari eta profesionalak zirela ikusi dugu, eta HISCO metodologia³ erabilitako analisietan, biztanleria aktiboaren %13,3 Zuzendari Orokorrak zirela ondorioztatu ahal izan dugu. Kontrara, soilik %21,7a ziren eskulangileak, gainerako alboko auzoetan kopuru hau nabarmen altuagoa zenean. Donostiako eskulangileen artean, Gaiztarrok zuen hiriko indizerik baxuena. Neskameen datuei erreparatuta, neskame kontzentrazio altuko eremua zen Gaiztarro, bertan erroldatuta zeuden emakume langileen %42,9k gisa horretako lanean jarduten baitzuen. 16 urtetik gorako biztanleriaren kasuan, %6,8 oraindik ikasleak zirela ikusi dugu, tasa ere bereziki altua garai hartarako eta guztiz ezberdina gainerako auzoekin alderatzen badugu.

1. irudia. Donostian zuzendari orokor gisa lan egiten zutenen gizonezkoen ehunekoa auzoka (1970):



Iturria: norberak egina 1970eko erroldako datuak erabiliz.


Hortaz, soberan ditugu argumentuak pentsatzeko Gaiztarro eremuak bere idiosinkrasia propioa zuela. Sortzez klase ertain eta altuko biztanleriari bideratutako etxebizitza poligonoa izan zen, eta 1963 eta 1975 urte bitartean eraiki zen, eskualdeko ardatz proletarizatuenean.

1962ko Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) inflexio puntu garrantzitsua izan zen. Lehenago Gaiztarro familiaren jabetzako finka eta parke familiarra zenak, aldaketa sakonak jasan zituen momentu honetan. HAPO berri horretan, Gaiztarro familiaren finka eta inguruak hedapen eremu gisa sailkatuak izan ziren, urgentzia demografikoari erantzuteko asmoarekin (Martinez eta Murillo, 1996). Ostera, Gaiztarro eremuaren eraikuntzak gorabehera ugariz betetako ibilbidea izan zuen.

³ *Historical International Classification of Occupations (HISCO)*. Sakontzeko: Van Leeuwen, M., & Maas, I. Trabajo, títulos y códigos de profesiones, clase y rango en una perspectiva comparativa. Notas introductorias para un número especial sobre el uso de HISCO. *Revista De Demografía Histórica-Journal of Iberoamerican Population Studies*, 32(1), 2014: 25-34.

Gaiztarro familiaren etxebizitzaz haratago, belardiz betetako eremua zen, frontoi eta gainerako beste azpiegitura txiki batzuk kenduta. Bidebietako lursail hauek 1962an jasan zuten aldaketa prozesua. Finkak 67.831m² zituen, ondorengo jabetzetan banatuta: Fausto Gaiztarro jauna %90aren jabea zen; Pasaiaiko Portuko Obren Junta (J.O.P.P.) %9aren jabe; eta Gipuzkoako Aldundiak %1aren jabetza zuen. Gaiztarro jaunak ordea, bere lursailak urbanizatzeraz behartuta zegoela ikustean, espazio horretan garatzeko hainbat proiektu urbanistiko aurkeztu zizkion udalari, bera bihurtuz, ez soilik espazio horren jabe, baizik eta proiektu horren promotore eta eraikitzaile. Onartutako proiektua, “*Bidebieta Parkeko Bizitoki Eremua*” izan zen, Bidebieta-I bezala ezagutzen den Plan Partziala alegia, eta aurrera eramanez enpresa, Gaiztarrok berak sortutako “*Inmobiliaria Baldazar*” bera izan zen. Osotara, proiektu honek 75.000m² hartu zituen, eta 473 etxebizitza egiteko asmoa adierazi zen (Martinez eta Murillo, 1996).

2. irudia. Gaiztarroko Plan Partzialaren proiektua (1963):



Iturria: Donostiako Artxibo Historikoa. Gaiztarroko Plan Partziala.

1963ko Plan Partzialean datorren moduan, Gaiztarro eremua jaiotzez berezia izateko asmoekin eraiki zen, garaian eraikitako alboko eremuekin eta eraikinekin zerikusirik izango ez zuena. Hainbat dira planak biltzen zituen berezitasunak. Hona hemen aipagarrienak:

- Zuhaitzez beteriko eremua nahi zen, honek estatus soziala ematen baitzion porlana nagusitzen ari zen garai hartan.
- Planak antolaketa eredu eta neurri ezberdinak hartu zituen bertako bizilagunak “eremu ezberdin” batean bizi zintezanaren sentsazioa izan zezaten, hiriko beste eremuekin zerikusirik ez zuena.
- Baldintza eta tamaina ezberdineko etxebizitzak eraikuntza bultzatu zen, denak espazio libreetara begira, aireztapena eta argitasuna bermatuta, eta eraikuntzak inguratzen zituen lorategi parkera sarbidea zutelarik.
- Harreman sozialak bermatu nahi ziren espazioa zen, non bizilagun batek eremua uzten zuen bakoitzean, bere erosotasun dena atzean uzten zuenaren sentsazioa izango zuen.

Finean, Gaiztarro hiri uharte bat zen, oinez batetik bestera ibiltzeko dimentsio egokiak zituena, eta bizilagunen beharrak asetzeko prestatua zegoena, besteak beste, liburutegi, posta, urgentziatzeko klinika, gizarte etxe, bulego, farmazia, denda, supermerkatu edota parrokia bezalako zerbitzuekin. Honela zihoen planak: “*en definitiva se desea que las gentes, viviendo en esta área, tiendan a formar conciencia de que pertenecen al lugar. A tenerle afecto. Esta condición de singularidad deseamos resaltarla. Y se cultiva en la mayor medida posible, para que constituya el verdadero incentivo de “Parque-Bidebieta”*” (Bidebietako Plan Partziala, 1963)

Hala ere, Gaiztarro eremuaren eraikuntza ez zen bide xamurra izan. Donostiako Artxibo Historikoan eremu honetako dokumentazioa ikuskatu ondoren, badakigu hainbat eztabaida egon zirela Gaiztarroren, Donostiako Udalaren eta Pedro Bidagor hirigile frankista ospetsuaren artean. Guztira,

hiru proiekturen onarpena bilatzen zuen Gaiztarro arkitektoak: Plan Partzialarena, Urbanizazio Planarena eta Eraikuntza Planarena.

Jakina den moduan, Donostiak ez zuen bere HAPOa 1962 urtera arte onartu, eta beraz, 1961ean jaulkitako proposamen hauek guztiek, zailtasunak zituzten balio juridikoa eskuratzeko. Hala gogorarazten zion Bidagor berak Donostiako Nicolas Lasarte alkateari 1962ko urtarrilean, argi utziz Plan Orokor baten faltan, *“Transzendentzia handiko edozein hiri proiektuk Hirigintzako Batzorde Orokorraren baimena beharrezkoa zuela”*⁴.

1963ko urtarrilaren 18an onartu zuen proiektua Udalak azkenean. Hirigintzako Batzorde Orokorrak urte hartako uztailan eman zion behin betiko oniritzia⁵. Gaiztarroko eremua, sei etapa ezberdinetan eraiki zen, etapa bakoitza eraikitzeke bi urteko epea ezarriz. Lehen lau etapak planifikatu moduan eraiki ziren arren, azken biek hainbat moldaketa behar izan zituzten, tartean 1962ko HAPOan adostu zen saihasbide errepidearen eraikuntza eta San Luis Elizaren birkokapena tarteko.

Bertan bizi ziren familiei erreparatzen badiogu, 1970ean gehiengoa Hego Euskal Herrikoa zen (%62,6), baina Gaztela eta Leongo (%11) eta Extremadurako familiek ere (%5,5) bazuten bere pisua. Etxebizitzaren jabetzari dagokionez, familia guztien %72,5ak bere jabetzan zuen etxebizitza, edo behintzat, hipoteka ordaintzeko prozesuan zen. Garai hartako hiriko beste auzoetako datu hau errepasatzen badugu, Gaiztarrok portzentai altua erakusten zuen etxebizitzaren jabetzari dagokionez. Alboko eremuetan, kopuru hau baxuagoa zen, tartean, etxebizitzaren jabe ziren familiak %65,5 ziren Altzan, edota %57,3 Intxaurren.

Beraz, maizterren edota berralokatzailen zenbakiak baxuagoak ziren Gaiztarron bere inguruko auzoetan baino. Soilik Bidebieta II-k, “La Paz” gisa ezaguna denak zuen Gaiztarrok baina jabetza tasa altuagoa (%93,7), zuzenean erregimen frankistak familiei saldu zizkien etxebizitzak izan baitziren. Gaiztarroko etxebizitzaren prezioek ere, ez zuten zerikusirik Altza edota Bidebietan eraiki zirenekin. Finean, elkarriketatuetako batek adierazten digun moduan, Gaiztarrora sartzeko mundu berri batera sartzeko zen garai hartan, eremu industrialak ahaztera eramaten zuen luxuzko eremua alegia:

*“Gaiztarro...ba Gaiztarro eraiki zan ba irla bat bezala. Nik esaten dizut, adibidez pisua erosi nahi genuenean, Gaiztarroko pisu batek gureak baino doblea balio zuela. Orain hori apurtu da, gure alabak erosi du Gaiztarron, baina pisu berbera eta jada ez daukate horrelako diferentziarik, baina garaian bai. Hura zan...ni juten nintzen hara balleta ikastera, zan beste mundu batean sartzeko ez?”*⁶.

Azkenik, Gaiztarron ezarritako biztanleen profilari erreparatzen badiogu, familia gazteak ziren bertan ezarri zirenak, eta %35,2ak 16 urte baino gutxiago zituen. Familia ereduari dagokionez, nuklearra zen nagusi (%78), baina familia aniztunak (%11) edota zabalak (%9,9) ere baziren. Datu hauek ere, demografikoki garai honetan ematen ari zen aldaketa erakusten digute, izan ere, familia zabal edo anitzen kopuruak behera egin zuen.

3.2. Gaiztarro eremuaren ezaugarri arkitektonikoak hizpide

Gaiztarro proiektua bereizgarria izateaz gain, aipatutako eraikuntza pauta horiek Mugimendu Modernoaren (Le Corbusier eta Eardley, 1973) eta Europako korrante arkitektoniko berrien eragin nabarmena izan zuten, aipatutako argitasunaren, aireztapenaren, zuhaitzen presentziaren edota gizarte zerbitzuez beteriko eremuak iradokitzen duen moduan. Finean, bizilagunek espazio harekiko atxikipen zuzen eta aktiboa izan zezaten bilatzen zuen Gaiztarrok.

Dena den, ezberdintasun handiena Gaiztarrok berak ezarri zituen marko estetiko berrietan zegoen. Ordura arte, hirian tankera horretako eraikinak ikustea oso zaila zen, fatxadetan kristal eta leihoek zuten garrantzi harekin, eta etxebizitza amerikar modernoaren ezaugarriekin. Gainera, zortzi edo hamar pisuko eraikin zorrotzak ziren, eta eraikuntza frankistak ordura arte ez zuen halakorik eraiki. Etxebizitza hauek ere, berritzaileak izan ziren zerbitzuetan, hodi sistema hobetu bat, material

⁴ Donostiako Udal Artxibo Historikoa. Bidebieta Parkeko Bizitoki Eremuaren Proiektua.

⁵ Donostiako Udal Artxibo Historikoa. Bidebieta Parkeko Bizitoki Eremuaren Proiektua.

⁶ Cristina Dominguez García-ri elkarrizketa, 2024ko apirilaren 4an.

egokiz hornitutako zutabe eta oinarriak, eta espazioa errespetatzen zuten elementu arkitektonikoak sortu baitziren, igogailuak kasu.

3. irudia. Zedroen Plazako 9 eta 11 blokeetako fatxadak:



Iturria: Donostiako Artxibo Historikoa. Gaiztarroko Plan Partziala.

Nolabait ere, kontraste bat suposatzen zuen alboko Bidebieta-II proiektuarekin. La Pazeko proiektuan, hamabost pisutako 12 etxe orratz planifikatu ziren, dentsifikazio demografiko handiago bat sortuz etxebizitza bloke bakoitzean, zerbitzu urriagoak eskainiz eta Gaiztarrok zuen inguru pribilegiatu hori izan gabe. Hortaz, Bidebieta I eta II proiektuak oro har aurreko hamarkadetan dirua egin zuten horien habitata izateko sortu baziren ere, bata oso ondo zaindutako goi mailako etxebizitzetaz eraiki zen, eta bestea, kalitate onezko etxe orratzen bidez.

Ikusi daitekeen moduan, fatxaden auzia garrantzitsua da. Izan ere, garai honetan sortu ziren beste etxebizitza poligono eta auzoek, ez zituzten ezaugarri hauek biltzen. Alaberga, Agustinak edo Beraun batek, edota Intxaurrendoko zein Altzako auzune ezberdinek oro har estetikoki homogeneousak ziren eredu arkitektonikoa jarraitzen zuten. Bidebietak berriz, espezializaziora eta bereizketara jo zuen, altueran eraikitako etxebizitzak izan zirelako batetik, eta kalitatezko material, distribuzio eta zerbitzuak zituztelako bestetik.

Fatxadek erakusten diguten elementu psikologikoa ere garrantzitsua da. Oro har, Gaiztarrok aspirazionismoa da transmititzen diguna. Hau da, 60ko Garapenaren Aldian dirua egin zuten horien habitata bihurtu zen hura, eta bertan bizitzeak, eskala sozialean salto bat ematea suposatzen zuen. Gaiztarro marka nolabait, oso presente egon da ere egin ditugun elkarrizketetan, bertan bizitzeak, *caché* moduko bat ematen baitzuen, prestigio bat, harrotasun puntu bat ere bai:

“por ejemplo, cuando construyeron Gaiztarro, en aquel momento eran los pisos de más...de alto standing, porque estaba hecho Amara...pero esos pisos eran los que se hicieron con entradas así... y los patrones por ejemplo compraron ahí pisos”⁷.

Kode bisualekin ere aise jolastu zuten. Jose Elozegi etorbidean barrena, monotonoa zen paisaia hori Bidebieta I eta II-k hausten zuten. Gaiztarrok batez ere, langile auzoen erdian zegoen belardi eta zumardiez betetako eremua ordezkatzeko zuten, eta zumardi mordo horretatik ateratzen ziren kristalezko fatxadek atentzio handia sortzen zuten.

Garrantzitsua da Gaiztarroko elementu ezberdin hauek ikertzerako orduan, gure begirada zabaltzea. Etxebizitza, Juárez Pichardok dion moduan, egunerokoa antolatzen laguntzen duen espazioa da, eta beraz, eraikuntza bat baino gehiago da. Historia familiarrekin lotutako espazioa da, balore zein sinesmen ezberdinekin erlazionatutakoa, eta batez ere, harreman sozialekin uztartutako elementua. Bere ustetan, arkitekturak bere elementu fisikoak elementu sinbolikoekin uztartzen ditu, eta forma adierazgarrien inguru bat sortzen da, mundu ikuskera bat ordezkatzeko duen lekua alegia. Finean, espazio adierazgarrien sistema bat da habitatzen dena (Juárez, 2015).

⁷ Cristina Dominguez García-ri elkarrizketa, 2024ko otsailaren 12an.

Bertan ere, autore honek, Enrique Dusselek iradoki zuen ideietan oinarrituta, adierazten du ezin dela habitata etxebizitza bat edukitzera mugatu, baizik eta “*etxean sentitzearen*” sentimendu eta esanahi horren garrantzia azpimarratzen du (Dussel, 2015).

Pacho Fernandezek ere, Bilboko zabalguneko burgesiaren etxebizitza barruetako diseinuan adituak, hainbat gako interesgarri ematen dizkigu. Batetik, egongelak elementu dominatzaile gisa duen papera azaltzen du, etxebizitzaren erdian kokatuta, bisiten erritualak bete eta jantokia alboan izanda, funtzionalitate sozialerako ezinbesteko elementuak ziren. Oro har, neskameen eremua, sukaldea eta espazio amankomunak etxebizitzaren atzealdean kokatu ohi ziren, ur zikinen bideak optimizatzeko helburuarekin. Horrez gain, harrera gela deituko zitzaion “*hall*”ak agertzen hasi ziren, egongela zabalak, bulego gelak eta antzekoak (Pacho, 2012).

Pacho Fernandezek esandakoa, aise betetzen da hein handi batean Gaiztarroko etxebizitza blokeetan. Zedroen plazako 1,3,5 eta 7 blokeetako barne diseinuak bilatu eta aurkitu ditugu Donostiako Udal Artxibo Historikoan. Bertan, konturatu gara, berrietasun handiak barnebiltzen zituzten planoak zirela hauek. Batetik, etxebizitzaren sarreran bertan “*hall*” deituriko harrera espazio bat aurkitzen dugu, anglizismo horrek markatutako lehen elementu modernoa. Jarraian, korridore luze eta zabala zegoen, egongelaren alboan kokatuta. Honek, Pachok adierazten duen prestigio elementua erakusten du, bisitak eta kanpoko jendea artatzeko leku duin eta eroso baten beharra alegia.

Kontatzen hasita, logela kopuruak ere atentzio berezia behar du. Guztira, lau logela atzematen dira etxebizitzako planoan, kopuru benetan altua garai hartako gainerako etxebizitzekin alderatuz. Gainera, frantses ukitua duen distribuzioa ikus daiteke hemen, guztiz ez ohikoa zena garai honetan. Batetik, bi komun eta garbigela ditugu. Hiru espazio ezberdinetan egoteak, higienaren garrantzia, eta erosotasuna adierazten dute. Gainera, Pachok esan moduan, neskamearen gela, sukaldea, arropa eskegitzeko gela eta komuna, etxebizitzaren atzealdean kokatzen dira, ur hodian sistema optimizatzeko helburuarekin.

Irudietan erreparatzean, garbigailua adierazten duen ikonoa ikusiko dugu. Hau, gaur egun oso barneratua dugun zerbait den arren, elementu iraultzaile bat zen garai honetan. Horrelako etxebizitza baten planoan garbigailua agertzeak, modernismoaren, berrietasunaren eta eremu aberats baten itxura ematen zion espazioari. Azkenik, igogailuaren elementua ere garrantzitsua da, izan ere, pribatutasun kutsua ematen zion, kaletik zure etxebizitzara zuzenean igogailu bidez igotzea ahalbidetzen baitzuen, inorekin kontakturik izan gabe hala nahi izan ez gero.

4. Ondorioak

Ondorio gisa, hasieran planteatu dugun galderari helduz, konfirmatu dezakegu analisi soziodemografiko eta urbanistiko honen bidez Gaiztarron ezarri ziren familiak ertain klase altuko familiak izan zirela oro har. Ondorio hau jada berritzailea da bere baitan, izan ere, Donostiako langile guztien erdian garaiko klase altuko jendearentzat propio eginiko prototipoa dugu Gaiztarro, uharte bat Donostia industrialaren bihotzean. Fausto Gaiztarrok, orube hartako jabeak, negozioa bilatu zuen proiektu urbanistiko bat tarteko, eta garaiko Mugimendu Modernoak baldintzatutako estetika eta ezaugarrien arabera eraiki zuen Gaiztarro. Batetik, Gaiztarroko kaleek eta zumardiek zituzten eremu berdeek eta mota guztietako zerbitzu guneek, erabat kontrastatzen zuten inguruko langile auzoetako egoera kaotiko, desordenatu, pobre eta degradatuarekin. Etxe talde eremu hau, aipatu den bezala, ez zen ordea eredu unibertsal bihurtu, baizik eta proiektu isolatu eta pribilegiatu bat baizik, industria eremuan dirua egin zuten horien zuzendutako proiektua finean.

Bukatzeko, bi kontu argi utzi beharko genituzke ere. Batetik, Donostiako periferiako auzo langileen eta erdiguneko auzo aberatsen arteko bereizketa bere horretan nahiko azalekoa dela, eta eremu industrializatuaren baitan ere, bazela ere klase segregazio garbi bat. Bestetik, Gaiztarro proiektua, eremu industrializatuan ahalmen ekonomikoa irabazi eta bere *status* sozialean gora egin nahi zuten horien nahimenaren adierazle ere izan zela. Frankismoko garapen ekonomikoaren garaian, ertain klaseko jendearen artean aspirazionismo joera garbi bat eratu zen, nolabait proletario izateari utzi, eta bere burua igogailu sozialean gora egiteko nahi batek gidatuta. Pobre izateari utzi nahi zion nahimena nagusitu zen.

Sentimendu horren efektu eta ondorioak ezin hobeto azaltzen ditu Emmanuel Rodriguezek, baina laburtuz, kasurik gehienetan jabetzaren baitako etxebizitzak eragin izugarria izan zuen herritarren subjektibotasunean, izan ere, hiri modernitatearen estandarrekiko homologazio soziala suposatzen zuen. Pisu baten jabetzak, bizitzaren forma berri bati eta aspirazio sozialari egiten zion erreferentzia (Rodríguez, 2022), eta Gaiztarro hein handi batean, hori izan zen azkenean: igogailu sozialean gora egiteko eremu pribilegiatua.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Gaiztarro eremua beraz, aspirazionismo sozial horren adibide garbia dugu. Ez da Donostiako historia garaikidean izan den adibide bakarra, hor ditugu eta gerora Intxaurren erakitako Montesol etxaldea edota antzeko luxuzko eraikuntzak. Dena den, eremu industrial nagusia hau izan den arren, Donostialdeak izan ditu ere bigarren mailako beste ardatz industrial batzuk, Oria eta Urumea ibaietako ertzak adibidez. Beraz, etorkizuneko erronka Pasaia portuaren baitan sortutako konglomeratu industrial horretatik abiatuz, gainerako eremu industrialak ere ikertzea da, Donostia industrialaren argazki osoa osatze aldera.

6. Erreferentziak

- Artola, M. (2000). *Historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia, Donostiako Udala.
- Cañamero, A. (1988). Alza. Crecimiento urbano y demográfico de la periferia de San Sebastián. *Lurralde*, 11, 329–385.
- Cañamero, A. (1990). Estudio urbano y demográfico de barriadas en la periferia de San Sebastián (Santa Bárbara, Roteta, Arrizar, Arriberri, Los Boscos). *Vasconia: cuadernos de historia - Geografía*, 16, 78-96.
- Calvo Sánchez, M. J. (1983). *Crecimiento y estructura urbana de San Sebastián*. Donostia, Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra.
- Dussel, E. (2014). *16 tesis de economía política. Interpretación filosófica*. México, siglo XXI.
- Echebaguren, F. M. (2011). *San Sebastián, origen y desarrollo de una ciudad*. Donostia: Erein.
- Gómez Piñeiro, J. (1982). El modelo urbano y la centralidad de San Sebastián y su área periférica. *Lurralde*, 5, 217-305.
- Gómez Piñeiro, J. eta Sáez García, J. A. (2017). Donostia-San Sebastián. Geografía e Historia. *INGE-BA*, 2, 1-437.
- Iceta Etxabe, M. (2018). *Una visión transversal de la construcción del territorio y de la ciudad desde la arquitectura*. Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV-EHU.
- Juárez Pichardo, M. (2015). La vivienda como representación cultural. *Bitácora arquitectura*, 32, 90-99.
- Larrinaga, C. eta Ubiria, J.M. (1992). “Algunas reflexiones sobre el futuro de la trama urbana de San Sebastián según el avance del Plan General de Ordenación Urbana. Una perspectiva histórica”. *Lurralde*, 15, Donostia, Euskal Geografi Elkargoa “Andrés de Urdaneta”.
- Le Corbusier, eta Eardley, A. (1973). *The Athens Charter*. New York, Grossman Publishers.
- López, A. (2010). *Crisis: ciudad y territorio. El modelo de San Sebastián*. Donostia, Koldo Mitxelena.
- Martínez, A. eta Murillo, I. (1996). Parque de Bidebieta. *Hautsak Kenduz, A.T.B.*, 97-107.
- Moratinos, B.H. (2001). Alza: historia y patrimonio. *Artiga bilduma*, 4, 1-112.
- Nistal, M. (1990). La evolución del precio del suelo de San Sebastián (1979-1989). *Lurralde*, 13, 313-350.
- Pacho Fernández, M. J. (2012). La arquitectura de la vivienda y la configuración del espacio doméstico en Bilbao en el siglo XIX. *Bidebarrieta*, 23, 62-64.
- Ponte Ordoki, E. (2014). *La construcción de la ciudad. Guipúzcoa 1940-1976*. Doktoretza tesia UPV-EHU.
- Rodríguez López, E. (2022). *El efecto clase media: crítica y crisis de la paz social* (1ª ed.), Madril, Traficantes de Sueños.
- Uranga, L.L. (2012). *La construcción de la arquitectura residencial en Gipuzkoa durante la época del desarrollismo*, UPV-EHU.
- Urquidi, P. (1984). “San Sebastián: un ejemplo de la relación existente entre la producción científica y la realidad territorial y social”. *Lurralde*, 7, Donostia.
- Van Leeuwen, M. eta Maas, I. (2014). Trabajo, títulos y códigos de profesiones, clase y rango en una perspectiva comparativa. Notas introductorias para un número especial sobre el uso de HISCO. *Revista de Demografía Histórica-Journal of Iberoamerican Population Studies*, 32(1), 25-34.